

ARG.: LUIS JAUREGIALZO / ARGAZKI PRESS

Agustín Sánchez Lavega astrofisikariak jasoko du Euskadi Ikerkuntza Saria

[Agustín Sánchez Lavega](#) astrofisikariarentzat da 2016ko Euskadi Ikerkuntza Saria. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ematen du sari hori, eta adierazi dute Sánchez Lavega aitzindari izan dela EAEko espazio-zientzien arloan astronomia eta astrofisika txertatzen: Zientzia Planetarioen Taldea sortu zuen, baita Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko Espazio Gela eta Behatoki Astronomikoa.

Ikerketan, eremu esperimentalean zein teorikoan aritu da. Besteak beste, Jupiter, Saturno eta honen satelite Titanen atmosferetako ekaitz-ereduak garatu ditu, [Artizarra](#), Jupiter eta [Saturnoko haizeen ereduak](#), baita planeta erraldoietako antizikloi eta zikloi erraldoien izaerari buruzkoak ere.

Oinarritzko zientzian egin duen ikerketaz gain, Sánchez Lavega irakasleak astronomia-instrumentazioaren garapen teknologikoan ere badihardu, EHUren PlanetCam proiektuan. Teknologia espazialaren eremuan, Europako Espazio Agentziaren zenbait proiektutan parte hartu du, hala nola, Venus Express misioaren VIRTIS proiektuan, eta JUICE misio espazialaren MAGIS proiektuan. Halaber, Marte planetarako NASAren [Mars 2020](#) misioan MEDA instrumentuaren iker-tzaile-kide eta koordinatzaile zientifiko izendatua izan da. ●


Biziaren arrasto zaharrenetakoak aurkitu dituzte iturri hidrotermal izandako arroka batzuetan

Gutxienez 3.770 milioi urteko mikroorganismoen arrasto fosilak aurkitu dituzte, itsas hondoko iturri hidrotermal izandako arroketan. Ezagutzen diren biziaren arrastorik zaharrenetakoak lirakeke. [Nature aldizkarian eman dute aurkikuntzaren berri](#).

Kanadako ipar-ekialdean dagoen Nuvvuagittuq gerrikoa izeneko arroketan aurkitu dituzte arrastoak. Aurretik egindako datazioen arabera, 3.770 eta 4.290 urte artean dituzte arroka horiek, eta garai hartan itsas hondoko iturri hidrotermalak zirela jotzen da. Orain, arroka horietan hodiak eta harizpi-formako egiturak aurkitu dituzte, itsas hondoko iturri hidrotermaletan bizi ohi diren mikroorganismoek sortzen dituzten egituren antzekoak. Horrez gain, jarduera biologikoaren beste adierazle batzuk ere aurkitu dituzte; burdin-oxidozko granulak eta karbonatozko errosetak, esaterako.

Duela hilabete batzuk izan genuen [Groenlandian aurkitutako 3.700 milioi urteko estromatolitoen](#) berri. Itsasertzeko sakonera gutxiko uretan bizi ziren mikroorganismoek utzitako aztar-nak ziren haiek. Bi aurkikuntza hauek

iradokitzen dute garai hartarako bizi anitza zela, eta itsasoan ongi hedatua zegoela, itsasertzeko sakonera gutxiko uretatik itsas hondoko tximinia hidrotermalera. ●



Kanadako Nuvvuagittuq gerrikoan aurkitutako arrasto fosilak. Ezkerretik eskuinera, mikrohodiak, harizpiak, eta karbonatozko erroseta. ARG.: MATTHEW DODD.